

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko martxoaren 16tik 22rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/03/20

- 2019ko otsailaren 20ko Ebazpenaren akatsen zuzenketa. Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpen horren bitartez erregistratzen eta argitaratzen da Txatarraren alorreko VI. Hitzarmen kolektibo orokorra (2018-2021). **2019-4064 xedapena - 1 or.**

Esukal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 2019/03/21

- EBAZPENA, 2019ko martxoaren 11koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, argitaratu eta gordailutzen baita «Garbitzaileen eta sukaldeko langileen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko mahaiaren Akordioa», Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboa aldatzen duena (Hitzarmen kodearena: 86000050011986). **1460 xedapena - 8 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/03/16

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Higiezin-kredituen kontratuak.** - 5/2019 Legea, martxoaren 15ekoa, higiezin-kredituen kontratuak arautzen dituen. **2019-3814 xedapena - 71 or.**

2019/03/19

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Ondasun higiezinak. Finantziarioa.** –Ebazpena, 2019ko martxoaren 7koa, Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Nagusiarena, 2018ko abuztuaren 1eko Ebazpenaren akatsak zuzentzekoa. Horren bitartez onesten da izaera pertsonaleko datuen tratamendurako borondatezko klausula orokorraren eredia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) ezarritakoaren arabera. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu orokorra) indargabetzen du. **2019-3959 xedapena - 1 or.**

2019/03/21

- **BARNE MINISTERIOA. – Hauteskundeak.** - INT/318/2019 Agindua, martxoaren 19koa, zeinaren bitartez aldatzen diren Hauteskunde-prozesuen arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuaren eranskinak. **2019-4082 - xedapena - 17 or.**
- **HAUTESKUNDE-BATZORDE ZENTRALA. - Hauteskundeak.** 7/2019 Instrukzioa, martxoaren 18koa, Hauteskunde-batzorde zentralarena, martxoaren 11ko 5/2019 Instrukzioari idazkera berria ematen diona, desgaitasuna duten pertsona guztien sufragio eskubidea bermatzeko abenduaren 5eko 2/2018 Lege Organikoaren ondoriozko Hauteskundearen Araubide Orokorraren Lege Organikoaren aldaketaren aplikazioari dagokionez. **2019-4084 xedapena - 2 or.**
- **SUSTAPEN MINISTERIOA. - Lurreko garraiobideak.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 15koa, Lurreko Garraiobideen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez aditzera ematen den indarrean sartu dela Gidaria duten ibilgailuen errentamendu-zerbitzuen jakinarazpenen erregistroa eta hori erabiltzeko baldintzak. **2019-4120 xedapena- 3 or.**
- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza.** Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Gizarte Segurantzaren Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez agintzen den enpresek Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntza boluntarioa emateko etete-prozedura, gaixotasun arrunten edo lanetik kanpoko istripuetatik eratorritako aldi baterako ezintasunen ondoriozko prestazio ekonomikoei dagokienez. **2019-4128 xedapena - 4 or.**

2019/03/22

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA.**

- **Hidrokarburoak.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 11koa, Energiaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bitartez biopropanoa sartzen den urriaren 9ko ITC/2877/2008 Aginduaren eranskinean, zeinaren bitartez ezartzen den garraiorako bioerregaiak eta beste erregai berriztagarri batzuk erabiltzea sustatzeko mekanismo bat. **2019-4154 xedapena - 2 or.**
- **Erregaiak. Prezioak.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 12koa, Politika Energetikoaren eta Meatzeen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen diren produktuen prezioak eta zerga bereziak, harriatzari, fuel olioari, diesel olioari eta gasolioari aplikatu dakizkiokeenak, eta 2018ko bigarren seihilekoko likidazioan aplikatu beharrekoak, penintsulakoak ez diren sistema elektrikoetan. **2019-4155 xedapena - 3 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/03/21

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.** - AGINDUA, 2019ko martxoaren 13koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2019ko apirilaren 28ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte hartzeko arauak ematen dituenak. **1459 xedapena - 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - 112/2019 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onestea 763 eredua, joko jardueren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko erabiltzen dena urteroko edo urte anitzeko jardueren kasuan, eta onestea, halaber, eredua aurkezteko modua eta epeak, eta arautzea baldintza orokorrak eta telematikoki aurkezteko prozedura. **880 xedapena - 9 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/03/21

- **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA. -**
Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatuaren 2908/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 11koa, 2020.ko zerga itunduetango Bizkaia Lurralde Historikoko udalerrien partaidetzen behin betiko likidaziorako beharrezko informazioa zuzkitzeko toki erakundeek erabili behar duten eredia onartuz. **3 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.

(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO